

ANTOÑANA

— ARABA / ÁLAVA —

Gasteizen hego-ekialderantz dago Antoñana, 33 kilometrora. Hona hemen hiriburutik irtenez gero egin beharreko bidea: Elorriagarantz irtengo gara eta eskuinetara egingo dugu A-132 errepedean zehar, Santikurutze Kanpezurantz. Antzinako bi errepede nagusik bat egiten zuten bertan: batetik, Armentiatik Lizarrara zihoan bideak, hau da, Okina, Saseta, Arluzea, Korres eta Kanpezu zeharkatzen zituen bideak; eta, bestetik, Arabako Lautadatik Azazeta mendatean zehar zetorrenak. Dagoen lekuan egonda, paisaia ederra du Antoñanak pagadi eta bide estuek eratua. Bideok zabalduz joango dira Kanpezu haranerantz iritsi ahala.

Hiribildu gotortua da Antoñana eta Erdi Aroko harresiaren zati bat gorde du. 1182. urtean sortu zuen Antso Jakituna Nafarroako erregeak, baina lehenago ere ba omen zegoen bertan gotorleku bat. Arabako beste hiribildu batzuetan gertatu zen moduan, Antoñana ere bere erreinurako hartu zuen Alfontso VIII.a Gaztelako erregeak, eta –1204. urtean, testamentuan Nafarroako Antso Azkarrari bai hiribildua bai Santikurutze Kanpezuko gaztelua itzuliko zituela hitz eman arren–, 1239. urtean, Antoñana behin betiko sartu zen Gaztelako lurretan. Errege-forua izan zuen urteetan, harik eta, mesede bat ordaintzeko, Enrike Trastamarakoak Ruy Díaz de Rojas eman zion arte. Haren ondotik Hurtado de Mendozakoen leinura, Orgazko kondekondesen eskura, pasatu zen. Luzaro borrokatu zen hiribildua zegokion jurisdikzioa lortzeko, eta, azkenean, 1635ean independentzia lortu zuen, Gaztelako Koroari polito ordainduta. Baliteke horregatik ez egotea parrokian XVIII. mendea baino lehenagokoak den lan aipagarriak. Gasteizko Elizbarrutiaren Ondarearen Katalogoak bildu ditu datu horiek guztiak.

Martin Gil lizentziatuak 1556an egindako bisitaldian, parrokiak hiru benefiziadun omen zituen eta bost basiliza; horietatik Andre Mariarena baino ez dago gaur egun. San Zipriano eliza zenaren arrastorik ere ez da ageri. Hiribilduaren sarreran omen zegoen elizan egin ohi ziren, Antso Jakitunaren foruari jarraituz, zin-egite eta lekukotzak. Santikurtzekoekin txandaka, Antoñanakoek betetzen zituzten Kanpezuko ermandadeko alka-

La localidad de Antoñana se encuentra situada 33 km al sudeste de la capital alavesa. Para acceder a ella desde Vitoria-Gasteiz, saldremos hacia Elorriaga donde giraremos a la derecha por la carretera local A-132 en dirección a Santa Cruz de Campezo. Está situada en la confluencia de dos importantes caminos antiguos: el que desde Armentia se dirigía a Estella por Oquina, Sáseta, Arluzea, Corres y Campezo, y el que llegaba desde la Llanada Alavesa a través del puerto de Azáceta. Este enclave proporciona a Antoñana un bonito paisaje de hayedos y estrechos caminos que, en ese punto, inician su apertura hacia el valle de Campezo.

Es Antoñana una villa fortificada que aún conserva parte de su muralla medieval. Fue fundada por el rey Sancho el Sabio de Navarra en 1182, pero con anterioridad ya debía de existir un fuerte en dicho lugar. Como otras villas alavesas, fue incorporada a Castilla por el rey Alfonso VIII y –aunque en su testamento de 1204, prometía a Sancho el Fuerte de Navarra su devolución junto al castillo de Santa Cruz de Campezo–, en 1239 Antoñana era definitivamente castellana. Fue realenga hasta que don Enrique de Trastámara la dio por merced a Ruy Díaz de Rojas, y de éste pasó al linaje de los Hurtado de Mendoza, Condes de Orgaz. La villa discutió largamente y pleiteó la jurisdicción hasta conseguir su independencia en 1635, previo un fuerte pago a la Corona de Castilla. Quizá este desembolso fue el motivo por el que no hay obras de importancia en la parroquia anteriores al siglo XVIII. Son datos que recoge el Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria.

En la visita pastoral realizada por el licenciado Martín Gil, en 1556, la parroquia contaba con tres beneficiados y tenía cinco ermitas de las cuales sólo se conserva la de Santa María. Tampoco ha quedado rastro de la iglesia de San Cipriano, situada a las puertas de la villa, en la que debían darse y recibirse los juramentos y testimonios, según el fuero del rey Sancho el Sabio. En la villa de Antoñana recaían, en turno con Santa Cruz, los cargos de Alcalde de la Hermandad de Campezo y del Procurador que concurría a las Juntas

te- eta prokuradore-karguak; eta horiek ziren ermandeko ordezkari Arabako Batzar Nagusietan. Gaur egun Kanpezu udalerriaren parte da, Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrillaren barruan.

de la Provincia representando a la Hermandad. En la actualidad pertenece al municipio de Campezu/Kanpezu y forma parte de la cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa/Kanpezuko-Arabako Mendialdea.

San Bizente eliza / Iglesia de San Vicente

SAN BIZENTE LEHEN Martiria gurtzeko eliza da Antoñanako. Herriaren hegoaldean dago, gotorlekua izan zenaren sarreran. Horregatik, iparraldean egin zioten tenpluari ataria, eliza gehienek hegoaldean izaten duten arren. XVIII. mendeko eraikina eta dorre garaia ditu elizak, eta ez da inon aurreko aroetako aztarnarik ageri. Hori bai, bataiarri erromaniko baten kopa aurkitu zuten, urteetan ukuilu batean lurperatuta egon ostean. Esferaerdiko kopa bat da eta, zatika bada ere, erronbodun greka bat igartzen da goialdean. Erronbo horietako batzuetan,

LA IGLESIA DE ANTOÑANA se encuentra bajo la advocación de San Vicente protomártir. Está situada en la zona sur del pueblo, a la entrada de lo que fue el recinto amurallado, lo cual condicionó la apertura de su pórtico hacia el Norte, al contrario que la mayoría de las iglesias, que lo tienen dispuesto en el muro sur. Presenta un edificio y una esbelta torre obra del siglo XVIII, sin quedar en ella restos de épocas anteriores. Sí hemos encontrado la copa perteneciente a una pila bautismal románica, sin duda, que fue hallada recientemente en una cuadra, donde

Herriaren ikuspegi orokorra / Vista general del pueblo





Bataiarria

Pila bautismal

barrualdean, polikromiaren arrasto txiki batzuk –pintura gorriak– ere igartzen dira. Gaur egun kanpoan ipinita dago bataiarri hori, kartzelaren ondoan, herriko bazter hori polito apainduz.

Testua eta argazkiak: RHA

había permanecido enterrada. Es una gran copa semiesférica en la que, aunque fragmentada, se puede apreciar una greca de rombos en la parte superior, que conservan restos de policromía –pinturas rojas– en el interior de alguno de ellos. Hoy se encuentra colocada al aire libre, junto a la cárcel, embelleciendo un bonito rincón del pueblo.

Texto y fotos: RHA

Bibliografia / Bibliografía

LABORDA YNEVA, J., 2003, pp. 124-127; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 505; PORTILLA VITORIA, M. J. et alii, 1968, p. 257.

Landako Andre Maria baseliza / Ermita de Nuestra Señora del Campo

HILERRIAREN ONDOAN, 200 bat metrora ekialdera dago, Antoñanako aldirietan, Landako Andre Mariari eskainitako baseliza erromaniko apainaskoa. Harlangaitzez egindako eraikina da, eta berorren hormetan hiru zabalera desberdin igartzen dira. Altuan ere aldaketak egon omen ziren urteetan. Halaxe erakusten du, adibidez, teilatuari eusten zion erlaitzak, edota absidea gora igotzeko erabili zituzten materialen markak ere. Gaur

SITUADA JUNTO al cementerio, a escasos 200 m, hacia el Este y a las afueras de la localidad de Antoñana, se encuentra una coqueta ermita románica dedicada a Nuestra Señora del Campo. Es un edificio realizado en mampostería, en cuyos muros se pueden apreciar tres volúmenes ligeramente diferenciados en anchura y que, sin duda, también lo fueron en altura, como nos lo hace suponer la cornisa en que se apoyaba el tejado y los ma-

egun denen sabaia bateratuta dago. Ezaugarri horiei guztiei burualdean zirkuluerdiko abside bat dagoela gehitzen badiogu, egiturari, Markizeko San Joan basilizaren antzekoa dela pentsatzekoa da. Honako honi, ordea, kanpai-horma txiki bat gehitu zitzaion hegoaldeko hastialean 1757. urtean, bai eta portada bakun bat gordetzen duen elizpe bat ere, hegoaldeko horman.

Hegoaldean, nabeari dagokion atalean dago portada. Arku tolestu zorrotz batek osatzen du, ertz bizian egina, eta baoaren alde bietan, horman behera egiten du, horretara ate-zangoak eratuz. Elementu lauak dira denak, apaingarririk gabeak, eta inposta lerroa eta deskarga-arkua baino ez dira nabarmentzen bertan, biak apur bat molduratuta baitaude. Erlaitz bakun baten azpian, teilatuari eutsiz, harburu ilara bat dago. Lauak dira, eta profil ahurrekoak gehienak; halere, horietako batzuek ezagun dute erliebeak izan dituztela, nahiz eta gaur egun ezinezkoa den identifikatzea, oso hondatuta daudelako.

Beherengo mailan Erdi Aroko beste harburu-ilara bat dago; harresi osoan zehar doa, hegotik iparrera, eta presbiterioa eta zirkuluerdiko absidea inguratzen ditu. Nabearen atalean diren eredu berberei jarraitzen zaie hemen ere: lauak eta profil ahurrekoak dira, presbiterioaren alde bietan daudenak kenduta. Bi horiek eta harresi sendoago batek berorren eta absidearen zirkuluerdiaren hasiera hobeto bereizteko balio dute. Parametro horiek guztiak hautsiz, saietara batzuk; bat hegoalderantz, eta beste bat iparrerantz presbiterioan. Hirugarrenak, ostera, ekialderantz egiten du, absidearen erdian. Bao estuak dira denak ere, erdi-puntuko arku batekin eta ertz alakatu batez osatuak.

Iparreko horman, nabeari dagokion atalean ere bada Erdi Aroko harburu-ilara bat, teilatu hegalarri eusten dion erlaitzaren azpian. Lehenengo harburua xake irudiz dago apainduta, hurrengoak lauak dira, eta profil ahurra daukate, eta harresiaren mendebaldeko hegalean dagoen harburua, berriz, hosto lau batez apainduta dago, punta azpikoz gainera duela, bola baten gainean.

Barrualdea gune bakarra da, eta zabalera desberdinak ditu. Ez dago barruan, dena den, kanpoaldeko hormek duten aldea, presbiterioa eta absideko hormak nibelatu egin dituztelako. Hiru saietara bereizten dira bertan, txaranbeldu samarrak, eta, barruan, zati-planoak irudikatzen dituen pintzelkaden arrastoak daude. Esfera laurden batek estaltzen du absidea, eta presbiterioak kanoi-ganga zorrotza du. Nabea, berriz, ateburu batek estalia da. Garaipen-arkua ere zorrotz samarra da; bakuna da, ertz bizi errematutua, eta horman behera dator, berorri eusten dioten pilastrak eratuz. Horma guztiak noizbait aldatuta daude, eta gerta litekeena da garaipen-arkua izatea Erdi Aroko basilizatik gorde den bakarra, nabea bera 1951. urtean berregin zuten

teriales que marcan el recrecido del ábside y presbiterio, unificando en la actualidad la cubierta para todos ellos. Si a estas características añadimos el ábside semicircular que corona la cabecera, podemos imaginar que era un edificio semejante, en cuanto a estructura, al de la ermita de San Juan, en Markinez, al que, en este caso, se añadió una pequeña espadaña en el hastial de poniente, en 1757, y un pórtico que cobija una sencilla portada, en el muro sur.

En el lado del mediodía, en el tramo que corresponde a la nave, se halla la portada, formada por un arco doblado y apuntado, en arista viva, que baja a lo largo del muro por ambos lados del vano, dando lugar a las jambas. Todos son elementos lisos, carentes de motivos ornamentales, en los que únicamente sobresale la línea de imposta y el sobrearco, ambos ligeramente moldurados. Bajo una sencilla cornisa, que sirve de apeo al tejado, se conserva una hilera de canecillos, lisos y de perfil cóncavo en su mayor parte; sin embargo se puede apreciar como, algunos de ellos, han tenido relieves, pero hoy se encuentran tan deteriorados que es imposible su identificación.

En un nivel inferior encontramos otra hilera de canecillos medievales que recorre, a lo largo de todo el muro, el espacio que corresponde al presbiterio y al ábside semicircular, y que va desde el muro sur hasta el muro norte. Siguen el mismo modelo que los descritos en el tramo de la nave: lisos y de perfil cóncavo, a excepción de dos que se hallan situados en la zona del presbiterio, a ambos lados, y que, junto a la anchura del muro, refuerzan el punto donde se produce la separación entre éste y el comienzo del semicírculo del ábside. Tres aspilleras rasgan estos paramentos, uno hacia el Sur y otro hacia el Norte en el presbiterio, mientras que el tercero lo hace hacia el Este, en el centro del ábside. Son vanos estrechos rematados en arco de medio punto y con la arista en bisel.

En el muro norte, en el tramo correspondiente a la nave, se conserva también una hilera de canecillos medievales bajo la cornisa que sustenta el alero del tejado. El primero de ellos está decorado con un precioso y contundente ajedrezado, los siguientes son lisos y de perfil cóncavo, hasta llegar al extremo occidental del muro, donde encontramos otro canecillo decorado con una hoja plana que vuelve la punta hacia afuera sobre una bola.

El interior es un espacio único, diferenciado en anchura, aunque en menor medida que en el exterior, ya que los muros del presbiterio y del ábside han sido nivelados. En ellos podemos ver las tres aspilleras con un marcado abocinado, en cuyo interior se conservan restos de pinceladura que simulan despiece. Se cubre con un cuarto de esfera en el ábside, y bóveda de cañón apuntada en el presbiterio. La nave se cubre en dintel. El arco triunfal, ligeramente

*Baselizaren ikuspegi
orokorra*

*Vista general
de la ermita*



Absidea

Ábside





Portada

Portada



Iparraldeko hormako barburua

Canecillo del muro norte

eta. Absideko eta presbiterioko zirkuluerdiei dagokienez, ezagun dute gerora berregindakoak direla. Horrek, jakina, estalki osoari eragingo zion.

Tenplu barruan den beste elementu adierazgarri bat dugu Landako Andre Mariaren irudia, debozio handia baitiote bertakoek amabirjina horri. XIII. mendearen amaierako taila da. Amabirjinak, erregina den legez, koroa du jantzita belo gainean. Beloa sorbaldetan behera dator alboetan sigi-saga eginik. Aurrez aurreko irudia da, eta Jesus Haurra du ezker hankaren gainean eserita. Haurrak eskuin eskuko bi atzamar ditu jasota, bedeinkapena ematen, eta ezker eskuan, berriz, munduaren bola dauka.

Testua eta argazkiak: RHA

apuntado, es sencillo, se remata en arista viva, y baja a lo largo del muro formando las pilastras sobre las que apea. Todas ellas son cubiertas sobre las que se ha intervenido, por lo que posiblemente sólo el arco triunfal corresponda a la primitiva ermita medieval, ya que la nave fue reconstruida en 1951. Con respecto al semicírculo absidal y el presbiterio, hemos podido ver que presentan un recrecido posterior, que, sin duda, habría afectado a la cubierta.

Otro elemento muy interesante que se conserva en el interior del templo, es una imagen de gran devoción que representa a Nuestra Señora del Campo. Es una talla que puede fecharse a finales del siglo XIII. La Virgen, en su condición de reina, lleva corona sobre el velo, cayendo éste hacia la espalda y con discretos zigzag a los lados. Se muestra en posición frontal, con el Niño sentado en la pierna izquierda. Éste tiene extendidos dos dedos de la mano derecha, en actitud de bendecir, mientras que en la izquierda porta la bola del mundo.

Texto y fotos: RHA

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 66; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1968, p. 260; VEGAS ARAMBURU, J. I., 1986, pp. 18-22.